

MANOIPUIN Behiaketa 2025



Manoipuin Behiaketa

Goitizena _____

Izenburua _____

Malla _____

Izen-abizenak _____

Helbidea _____

Telefonoa _____

e-posta _____

Mank
s a k a n a

1. Lehiaketa honetan euskalduntzen ari den Sakanako edozein pertsonak har dezake parte, baita Mintzakide programako parte-hartzaileek ere.
2. 3 maila ditu lehiaketak:
 - 1. mailan A1 eta A2 mailetako ikasleek har dezakete parte.
 - 2. mailan, berriz, B1 mailako ikasleek.
 - 3. maila B2 eta C1 mailetako ikasleendako da.Mintzakide programako parte-hartzaileek duten ezagutzaren pareko mailan hartuko dute parte.
3. Lanak banaka egingo dira, eta egile bakoitzak nahi beste testu aurkez ditzake. Nanoipuin bakoitzak 150 hitz izango ditu gehienez.
4. Lanak euskara hutsean idatziko dira eta argitaratu gabeak, jatorrizkoak eta beste edozein lehiaketetan saririk jaso gabeak izanen dira.
5. Indarkeria, sexismoa, arrazakeria edo bestelako eskubide urraketak sustatzen dituzten lanak ez dira onartuko.
6. Lan guztiak goitizen batez izenpetuko dira. Aparteko gutun-azal batean egilearen datuak sartuko dira antolakuntzak banatutako ereduan idatzirik. Gutun-azalaren kanpoko aldean garbi adierazi beharko dira honako hauek: lanaren izenburua, egilearen goitizena eta maila. **Lanak Sakanako Mankomunitateko Lakuntzako bulegoan aurkeztuko dira:**
Sakanako Mankomunitatea
Uriz 32, 31830 Lakuntza
7. Sakanako Mankomunitateak izendatuko du epaimahaia. Epaimahaiaren epaia apelaezina izanen da.
8. **Lanak aurkezteko epea 2025eko apirilaren 7tik 25era bitartekoa izanen da.** Lehiaketan parte hartzeko lanak irakasleek aurkeztu ahal izanen dituzte ikasleen izenean.

Dinarrriak

9. Sariak eman gabe gera daitezke, baldin eta obrek ez badute behar bezalako merezimendurik. Era berean, sariak *ex aequo* moduan banatu ahal izango dira lan batzuen artean.
10. Aurkeztutako lanak Sakanako Mankomunitatearen esku geldituko dira. Mankomunitateak lanak argitaratzeko aukera gordeko du, paperean zein webgunean, betiere egilearen izena adieraziz.
11. Aurkezten diren lan guztien egileek oroigarria jasoko dute. **Maila bakoitzeko saridunek 150 euroko txartel bana jasoko dute Sakanako liburu dendetan erabili ahal izateko.**
12. Lehiaketan parte hartzeak oinarriak onartzea dakar berarekin.
13. Sakanako Mankomunitateak bermatzen du datu pertsonalen babesari buruzko indarreko araudia beteko duela, zeina Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan jasotzen baita. Orobat, pertsona fisikoen babesari dagokionez, 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamenduan ezarritakoa beteko da.

Sakanako Mankomunitatea da lehiaketa kudeatzeko eta saria emateko xedez erabiliko diren datu pertsonalen arduraduna. Ez da daturik lagako legeak hala aginduta izan ezik. Parte hartzaileek eskubidea dute datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko —zuzenak ez badira— eta horiek ezabatzeko erregistro orokorrera edo egoitza elektronikora joaz. Datuen tratamendu-zerrenda eta informazio osagarria webgunea berritzeko **sakana-mank.eus** webgunean daude.
14. Ahal izatera, sari-ematea berariaz antolaturiko ekitaldi batean egingo da. Sakanako Mankomunitateak ekitaldian ateratako argazki eta bideoak zabaltu ahal izanen ditu.